

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Aiarako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresetako errotulazioan euskara gehitzeko 2021eko dirulaguntzen emakidaren deialdia eta oinarri arautzaileak

Udal honek, udalbatzak 2021eko irailaren 23an erabakitakoari jarraikiz, honako hau erabakitzen du:

Lehenengoa. Aiarako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresetako errotulazioan euskara gehitzeko dirulaguntzen emakidaren deialdia onestea.

Bigarrena. Aiarako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresetako errotulazioan euskara gehitzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onestea. 2021. urtea.

Hirugarrena. Deialdi hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.

Laugarrena. Oinarriari publizitatea ematea, ALHAOn, udalaren iragarki taulan eta udalaren web orrian testu osoaren iragarkia jarrita.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, oinarri horiek argitaratzen dira, guztiek horren berri izan dezaten.

Aiarako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresetako errotulazioan euskara gehitzeko 2021eko dirulaguntzen emakidaren oinarri arautzaileak

Lehenengoa. Oinarrien xedea

Oinarri hauen xedea Aiarako Udalak 2021ean Euskara Arloaren bidez Aiaran kokatutako merkataritza eta ostalaritza saltokiei eta zerbitzu enpresei indarrean dauden deialdietan gauzatu dituzten errotulazio lan berrietan euskara gehitzeko emango dizkien dirulaguntzen emakida prozedura arautzea da. Jarduketa horiek 2021eko abenduaren 31 aurretik egin beharko dira.

Laguntza horrekin, ia guztiz beste hizkuntza batzuek (nagusiki, gaztelaniak) monopolizatutako eremu batean euskararen presentzia sustatu nahi da, eta, horrela, errealitatea ofizialki aitortutako egoera elebidun batera hurbilduko da.

Aldi berean eta bereziki, jarduketa honen helburu soziolinguistikoa paisaia linguistikoan eragitea da, eta, hala, euskararen motibazio eta erabilera alorretan jardutea.

Dirulaguntzei honako hauek aplikatuko zaizkie: Aiarako Udalak onetsi duen Udal dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokorra; otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei eta transferentziei buruzkoa; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa; eta aplikatu daitezkeen legeria osagarria.

Bigarrena. Dirulaguntza jaso ahal izango duten errotulazioak

Honakoak kontuan hartuko dira dirulaguntzak emateko:

a) Dirulaguntzak emango zaizkie honako euskarrietan euskara gehitzen duten jarduketeki:

– Saltokiko kanpoko errotulu nagusia eta identifikatzailea: bertan, onuradunaren jarduerari edo saltokiaren ezaugarriari buruzko informazioa emango da. Errotulu nagusia bat bakarra da.

– Olanetako errotulazioa: bertan, erakunde onuradunaren jarduerari buruzko informazioa edo jarduera horri buruzko informazio espezifikoa jasota egongo da. Ez dira egongo erakundetik kanpoko bestelako publizitate elementuak.

– Ibilgailu industrialetako errotulazioa: bertan, erakunde onuradunaren jarduerari buruzko informazioa edo jarduera horri buruzko informazio espezifikoak jasota egongo da. Ez dira egongo erakundetik kanpoko bestelako publizitate elementuak.

– Merkataritza informazioa jasotzen duten xafletako errotuluak, betiere, bide publikotik ikusten diren atari edo sarbideetako kanpoaldean badaude eta eskaintzen den zerbitzuari buruzko informazioa badute, atariaren helbideaz, telefono zenbakiaz, eta antzekoez gain.

b) Aurreko baldintzak betetzen badira eta errotulua euskaraz badago oso-osorik, errotulatutako euskarriaren kostuaren zerga oinarriaren ehuneko 70era arteko dirulaguntza emango da eta, beraz, oinarri hori dirulaguntza jaso dezakeen gastutzat joko da.

Errotulua euskaraz eta beste hizkuntza batzuetan baldin badago, errotulatutako euskarriaren kostuaren zerga oinarriaren ehuneko 35eko dirulaguntza emango da eta berriz ere, oinarri hori dirulaguntza jaso dezakeen gastutzat joko da.

Edonola ere, onetsitako dirulaguntzaren zenbatekoaren gehieneko kopurua deialdian zehaztuko da.

Errotuluan euskaraz gain beste hizkuntza batzuk badaude, euskara beste hizkuntzekiko berdintasunez edo lehentasunarekin tratatu beharko da dirulaguntza jaso ahal izateko. Horretarako, irizpide hauek bete beharko dira:

1. Irakurketa ordenari jarraikiz, euskara beste hizkuntzen aurretik agertuko da. Hau da, testua bertikalean idatzita dagoenean, euskara beste hizkuntzen aurretik egongo da, eta testua horizontala denean, euskara ezkerrean egongo da.

2. Grafiak edo testuak tamaina ezberdinekoak direnean, handiena euskaraz idatzita egongo da.

3. Beharrezkoa denean, ondoren zehaztutako hierarkia tipografikoak erabiliko dira, garrantzitsuenetik garrantzia gutxien duenera. Edonola ere, euskaraz dagoen testuak beste hizkuntzek baino eskala handiagoa izango du:

– LETRA LARRIAK > Letra xeheak.

– Azpimarratuta > Azpimarratu gabe.

– Beltzez > Normala.

– Normala > Etzana.

– Balio handiagoa > Balio txikiagoa.

4. Baztertu daitezkeen eta hizkuntzetako bat diskriminatu dezaketen elementuak ez dira erabiliko. Adibidez, helbideak idaztean lehentasuna izango du "Iturran, 25" moldeak "C/ Iturran, n° 25" moldearen aurrean, administrazio hizkuntzaren gomendio orokorren eta nazioarteko gomendioen arabera.

5. Bi hizkuntzetako testuak banatuta daudenean, euskarazkoa beste hizkuntzetakoa bezainbeste edo hobeto ikusi ahal izango da.

c) Oinarri honetako a) eta b) apartatuak errotulazio elementu independente bakoitzean aplikatuko dira, hau da, errotulu nagusi bat baino gehiago behar denean (olana edo ibilgailua), laguntzak biderkatu egingo dira.

d) Ez dute dirulaguntzarik jasoko saltokiaren izena, abizena, izen-abizenak, toponimo bat edo antzekoak bakarrik idatzita dituzten errotuluek. Hau da, deialdi honen bidez zerbitzuaren izenaren elementu generikoak erabiltzea sustatu nahi da (harategia, okindegia, jatetxea, eta abar).

e) Ez dute dirulaguntzarik jasoko zuzen idatzita ez dauden edo akats ortografikoak dituzten lanek. Horretarako, lana egin aurretik, Euskara Arloaren aholkularitza jasoko da.

Laguntzak emango dira betiere errotulaturako testua euskaraz idatzita badago (bakarrik euskaraz edo beste hizkuntza batzuekin batera) eta euskarria saltokiaren kanpoko identifikazio errotulu nagusia, olana edo ibilgailua bada. Identifikazio errotuluetan ez zaie dirulaguntzarik emango bigarren mailako kartei, errotulu nagusiei baizik.

Hirugarrena. Dirulaguntzen deialdiaren zenbatekoa

Dirulaguntzen deialdi honetarako aurrekontuko gehienezko zuzkidura 2.000 eurokoa izango da.

Gastua 2021ean indarrean dagoen Aiarako Udalaren aurrekontuaren 335471000 ("Saltoki, enpresa eta abarretako errotulazioetarako euskara dirulaguntza...") partidaren kargatuko da.

Eskaera guztiei aurre egiteko aurrekontu esleipena egonez gero, dirulaguntza osorik emango da. Aurrekontu esleipenik ez badago, eman beharreko laguntza guztiak ehunekoetan gutxitu ahal izango dira eskuragarri dagoen aurrekontura egokitzeko.

Laugarrena. Ebazpen eta haztaperentarako balioespen irizpideak

Laguntza hauen nolakotasuna dela eta, ez da irizpiderik ezarriko laguntzak baloratzeko.

Bosgarrena. Eskatzaileak

5.1. Honakoek eskatu ahal izango dituzte dirulaguntzak: Aiarako merkataritza establezimendu baten titularrak diren pertsona fisikoak edo juridikoak, ostalariak edo zerbitzu enpresak (beharrezkoa izango da irekita dagoen merkataritza establezimendu bat izatea eta hori Aiaran kokatuta egotea), 2021ean dirulaguntza jaso dezaketen jarduketak egiten ari direnak edo egin dituztenak, eta honako betekizunak betetzen dituztenak:

- Egoitza soziala edo egoitza Aiaran izatea.
- Udaletxe honetako erregistroan agiri bidez frogatu ahal izatea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
- Dirulaguntzaren onuradun izateko debekuetan ez egotea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

5.2. Debekuak: Ez dute dirulaguntzarik jasoko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenek.

Seigarrena. Eskaerak aurkeztea eta epeak

6.1. Eskaerak aurkezteko epea: hilabetekoa izango da oinarri hauek ALHAOn argitaratzen direnetik aurrera zenbatzen hasita. Eskaerak Aiarako Udaleko Erregistro Orokorrean (udal bulegoetan), Aiarako Udaleko egoitza elektronikoan edo Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako lekuetan aurkeztuko dira.

6.2. Argibideak eta eskaeren izapideak: deialdiari buruzko argibide guztiak eskura egongo dira udalaren web orrian (www.aiarakoudala.eus).

6.3. Aurkeztu beharreko agiriak:

a) Diseinuaren proba, errotulatu beharreko testua eta errotulazio lanaren aurrekontu xehatua. Eginda badago, fakturaren kopia konpultsatua. Fakturarekin batera ordainagiria aurkeztuko da.

b) Eskaria pertsona fisiko batek izapidetzen badu, eskaria sinatu duenaren NANaren kopia; alderantziz, pertsona juridikoa bada, IFK txartelaren kopia, ordezkartzan jarduten duen pertsona fisikoaren NANaren kopia eta pertsona fisiko hori pertsona juridikoaren legezko ordezkaria edo ordezkari baimenduna dela dioen egiaztagiria.

c) Eskatzailearen izenean dagoen banku kontuaren zenbakia, dirulaguntza ordaintzeko.

d) Eskariari buruzko zinpeko adierazpena eta/edo deialdi honetako xede bera duen beste dirulaguntza bat jaso izanarena. Erakundea, eskatutako zenbatekoa eta dirulaguntza eman den edo ez zehaztu beharko da.

e) Administrazio eskumendunak egindako ziurtagiria, non jasotzen den eskatzaileak egunean dituela Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko betebeharrak edo, bestela, eskatzaileak izenpetutako baimena, Aiarako Udalak bere ordeziurtagiria eska diezaion administrazio eskumendunari, hain zuzen, adierazten duena eskatzaileek egunean dituztela Foru Ogasuneko zergak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak (2. eranskina).

6.4. Eskaera (pertsone fisiko edo juridiko bakoitzeko eskaera bat aurkeztuko da, albo batera utzita dirulaguntza zenbat jarduketetarako eskatu nahi den):

1. eranskina aurkeztu beharko da, behar bezala beteta eta sinatuta.

2. eranskina aurkeztu beharko da, behar bezala beteta eta sinatuta.

Halaber, eskaera guztietan kontuan hartu beharko da edozein dirulaguntzaren bitartez eskuratzen den finantzaketak ezingo duela gainditu jarduketaren kostua.

Udalak egoki jotzen dituen argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie erakunde eskatzaileei, aurkeztutako eskabidea hobeto baloratzeko.

Eskabidea behar bezala beteta ez badago edo aipatutako datu nahiz agirietako bat falta bada, eskatzaileari errekerimendua egingo zaio, 10 egun baliioduneko epean akatsak zuzen ditzan, eta ohartaraziko zaio, hori egin ezean, besterik gabe eskabidea artxibatu egingo dela.

Zazpigarrena. Balioespen irizpideak

Bigarren oinarriko betekizunak betetzen badira dagokion dirulaguntza emango da, betiere, aurrekontu eskuragarritasuna egonez gero.

Zortzigarrena. Eskaerak aztertzea eta ebaztea

Aiarako Kuadrillako euskara teknikariek aztertu eta balioetsiko dituzte eskaerak, eta txosten bat egingo dute, zeinaren berri emango baitzaio Aiarako Udaleko Euskara eta Hezkuntzako Informazio Batzordeari. Egokia iritziz gero, aurkeztutako agiriei buruzko datuak edo azalpenak eska ditzake udalak, eskaerak aztertu edo balioesteko.

Behin betiko ebazpena hartzea Aiarako Udaleko alkate-lehendakariari dagokio. Erabakiak laguntza onartu edo ukatuko du, eta ukatuz gero, horren arrazoia jasoko da. Ebazpena edozein dela ere, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutako kasuetan eta moduan aurkaratu ahal izango da.

Egokitzen jotzen denean, Euskara Arloak aurkeztutako dokumentazioari buruzko datuak eta azalpenak eskatu ahal izango ditu. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epeetan aurkeztu ez badira, espedientea atzeratu liteke edo behin betiko artxibatu ahal izango da.

Erabakia dirulaguntza ematearen aldekoa bada, ebazpenean laguntzaren zenbatekoa, ordaintza modua eta baldintzak jasoko dira.

Eskariak aurkezteko epea bukatzen denetik hiru hilabete igaro ondoren berriazko ebazpenik ez bada eman, eskaerari ezezkota eman zaiola ulertuko da.

Bederatzigarrena. Jakinarazpena eta ordaintzeko modua

Behin betiko ebazpena onetsi ondoren, eskatzaile guztiei bidaliko zaie. Ebazpena arrazoitua izango da eta, betiere, ebazpenaren oinarriak frogatuta geratu behar dira.

Dirulaguntza emango zaien eskatzaile guztien zerrenda eta gainerako eskarien ezestearena jaso beharko dira, eta erabakiok hartzeko arrazoiak azaldu beharko dira.

Halaber, laguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, emateko baldintzak eta aurkeztutako justifikazioaren onepena jasoko dira.

Dirulaguntza horien ehuneko 100 ordainduko da dirulaguntzaren justifikazioa onetsi ondoren, eta hori guztia hamargarren oinarrian jasotakoari jarraiki egingo da.

Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa da. Epea deialdia argitaratzen den unean hasiko da, betiere deialdiak berak ez baditu ondorioak atzeratzen geroagoko beste data batera.

Hamargarrena. Justifikazioa

10.1. Justifikatzeko epea:

Pertsona edo erakunde eskatzaileek dirulaguntzaren justifikazioa beranduenez 2022ko urtarilaren 31n aurkeztu beharko dute. Epe horretan aurkeztu beharko dira egindako jarduketaren faktura guztiak, ordainagiriak eta oinarri honetan adierazitako gainerako agiriak.

10.2. Dirulaguntzen justifikazioa:

Dirulaguntzarako aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko da, eta ez udalak emandako diru kopurua bakarrik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak xedatzen duen moduan.

10.3. Justifikazio sistema:

Dirulaguntza justifikatzeko, onuradunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1. Egindako errotulazio lanaren laburpena.
2. Gastuaren justifikazio fakturen edo froga baliozko agirien jatorrizko ordainagiriak edo fotokopia konpultsatuak, gastua beste baliabide edo dirulaguntza baten bitartez modu partzalean finantzatu baldin bada; horiek baliozkoak izan beharko dira merkataritza trafiko juridikoan edo administrazio eraginkortasuna izan beharko dute.
3. Aurkeztutako fakturen ordainagiriak.
4. Onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela jasotzen duten ziurtagiriak, salbu eta dirulaguntza eskatu zuen unean aurkeztu zituenak iraungi ez badira.
5. Errotulatutako elementuaren argazkia.
6. Diru sarreren eta gastuen likidazioan agertzen diren laguntzak jasotako bakarrak izan direla eta eskatutako beste laguntza batzuk bezala dirulaguntzaren eskaeran agertzen zirenak ukatu egin direla dioen zinpeko aitortpena.

Betebeharren bat edo batzuk betetzen ez baldin badira, emandako dirulaguntza indargabetu ahal izango da.

2. Aiarako Udalak, eskariak aurkezteko epea bukatu aurretik eta Dirulaguntzen Legearen 30. artikularen 2. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako eta 60.000 euro baino gutxiagoko laguntzak direnean, erabaki ahal izango du onuradunek 1.3 apartatuan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharrean uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Lege Orokorraren Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorraren 75. artikuluan araututako justifikazio kontu sinplifikatua aurkeztu beharko dutela.

Hamaikagarrena. Ordainketa

Aurreko oinarrian aipatutakoarekin bat justifikazioa aurkezten denean, Aiarako Kuadrillako langile teknikoek txostena egingo dute betekizunak betetzen direla edo ez zehazteko eta dirulaguntza jaso dezakeen jarduketa betetzat jotzeko.

Teknikariek aldeko txostena emanaz gero dirulaguntzaren ehuneko 100 ordainduko da, albo batera utzi gabe gutxitzeak ezartzea oinarri hauetan jasotako baldintzekin bat egiten duten eta/edo justifikatu diren jarduketaren zenbatekoa eskatutakoa baino txikiagoa izan delako.

Hamabigarrena. Jasotzaileen betebeharrak

Laguntza hauen onuradunek ondoko betekizunak bete beharko dituzte:

- a) Emakida oinarritzen duen errotulazioa egitea.
- b) Emandako laguntzari buruz udalak eskatutako egiaztaketa neurri posibleak onartzea.
- c) Deialdi honen hamargarren oinarrian eskatzen den justifikazio dokumentazioa aurkeztea.

Hamahirugarrena. Emandako dirulaguntza galtzea

Dirulaguntzen onuradunek beherago xedatutako baldintzak betetzen ez badituzte, alkate-lehendakariak dirulaguntza oso-oso edo horren zati bat (jarduketa partzialki bete ez bada) galduko dela ebatziko du, eta, hala dagokionean, jaso diren zenbatekoak gehi dirulaguntza ordaindu den unetik aurrera sortutako berandutze interesak itzultzeko betebeharra ezarriko du, eta hori egiteko transferentzia bat egin beharko da Aiarako Udalaren kontura.

Hauek dira inguruabar horiek:

- Aurkeztutako eskarian edo dokumentazioan adierazitako datuak faltsuak badira, dirulaguntza oso-osorik galduko da eta jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira.
- Dirulaguntzaren emakida arrazoitu zuen jardueraren helburua guztiz edo modu partzalean betetzen ez bada, jasotako dirulaguntza guztiz galdu edo gutxituko da, dagokionaren arabera.
- Justifikazio beharra betetzen ez bada edo behar beste justifikatzen ez bada, dirulaguntza guztiz galdu edo gutxituko da, dagokionaren arabera.
- Dirulaguntzaren zenbatekoak banaka edo bestelako laguntza publiko edo pribatuekin batera dirulaguntza jaso duen lanaren kostua gainditzen badu, emandako dirulaguntza gutxituko da eta, hala dagokionean, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira.
- Ahalik eta azkarren Aiarako Udalari jakinarazten ez bazaio bestelako dirulaguntza publikoak edo pribatuak jaso direla, dirulaguntza guztiz galduko da edo jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, nahiz eta Aiarako Udalak dagokion likidazioa onetsita eduki.
- Eta orokorrean, oinarri hauetan onuradunentzat eta likidazioetan aurkeztu beharreko dokumentazioarentzat ezartzen diren betebeharrak ez betetzea.

Hamalauugarrena Zehapenak

Aiarako Udalak, dagokion espedientea ireki aurretik eta ez-betetzeen larritasuna baloratu ondoren, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen II. kapituluko IV. tituluari jasota dauden zehapen diruzkoak eta ez diruzkoak proposatuko ditu, eta zehapen horiek dirulaguntzak itzultzeko betebeharrarekiko independenteak izango dira. Beti ere, zehapen bat jartzean dirulaguntzaren zenbateko osoa itzuli beharko da.

Jasotako zenbatekoak eta berandutze interesak itzultzeko betebeharraren erantzule subsidiarioak izango dira establezimendu onuradunen administratzaileak edo legezko ordezkariak.

Hamabosgarrena. Garapena eta interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, Informazio Batzordeak txostena eman eta gero.

Oinarri hauetan jasotzen ez den orotarako, Aiarako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza aplikatuko da.

Arespalditza, 2021eko urriaren 15a

Alkatea

GENTZA ALAMILLO UDAETA



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

I ERANSKINA / ANEXO I

ERRROTULAZIOAN EUSKARA SARTZEAGATIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA

3.05

SOLICITUD DE SUBVENCIÓN POR INSERCIÓN DEL EUSKERA EN ROTULACIÓN

ESKARIA AURKEZTEN DUEN PERTSONA EDO ENTITATEA / PERSONA O ENTIDAD QUE PRESENTA LA SOLICITUD				
1. abizena / 1.º apellido	2. abizena / 2.º apellido	Izena / Nombre	NAN-AIZ-Pasaporte / DNI-NIE-Pasaporte	
<input type="checkbox"/> Interesduna naiz / Soy la persona interesada		Sexua / Sexo	<input type="checkbox"/> Giz. / Hom.	<input type="checkbox"/> Ema. / Muj.
<input type="checkbox"/> Hau ordezkatzten dut: / Represento a:				
Ordezkatuaren NAN-AIZ-Pasaportea-IFZ:/DNI-NIE-Pasaporte-NIF del representado/a:				
JAKINARAZPENAK / NOTIFICACIONES (según Ley 39/2015 Legearen arabera)				
<input type="checkbox"/> Elektronikoki (ziurtagiri digitala behar da) / Electrónicamente (se necesita certificado digital)				
E-posta (abisuetarako) / E-mail (para avisos)				
<input type="checkbox"/> Posta arruntaz / Por correo ordinario				
Kalea / Calle	Zk. / N.º	Solairua/Piso	Aldea / Mano	Telefonoa(k) / Teléfono(s)
P.K. / C.P.	Herria / Municipio		Probintzia/ Provincia	E-posta / E-mail
BANKUKO DATUAK / DATOS BANCARIOS				
Kontu korrontearen IBAN kodea / Código IBAN de la cuenta				

Adierazten du / Expone

1.- Aiarako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresen errotoazioan euskara txertatzeko diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza ezarritako baldintzak betetzen dituela. / Que cumple con los requisitos establecidos en la ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones por inserción de euskera en rotulación de comercio, hostelería y empresas de servicio de Ayala.

2.- Helburu bera izanik, beste instituzio edo erakunderen bati laguntza eskatu al diozu? / ¿Ha solicitado ayuda o subvención con el mismo fin a otras Instituciones o Entidades?

EZ / NO	<input type="checkbox"/>			
BAI / SI	<input type="checkbox"/>	(Eskaearen eta erantzunaren fotokopiak aurkeztu behar dira) / (Debe adjuntar copia de la solicitud y de la resolución)		
		Instituzio edo erakundea / Institución o entidad:		
Erantzuna / Resolución:		<input type="checkbox"/> Emanda Concedida	Emaniko kopurua / Importe concedido	
		<input type="checkbox"/> Ukatua / Denegada		
		<input type="checkbox"/> Erantzunaren zain / A la espera de resolución		

3.- AITORTZEN DUT, nire erantzukizunpean, ez nagoela sartuta Aiarako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresen errotoazioan 2021ean euskara sartzegatik diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileen bosgarren klausulan jasotako diru-laguntza publiko baten onuradun izateko debekuetako batean ere. / DECLARO, bajo mi responsabilidad que no estoy incurso en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario de una subvención pública, recogidas en la cláusula quinta de Bases reguladoras para la concesión de subvenciones por inserción de euskera en rotulación de comercio, hostelería y empresas de servicio de Ayala del año 2021.



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

DIRULAGUNTZA ESKATZEN DU / SOLICITA SUBVENCIÓN

ESKATUTAKO JARDUERA /ACTUACIÓN SOLICITADA	ZENBATEKOA/IMPORTE
<input type="checkbox"/> Kanpoko errotulu orokor nagusia, establezimendua identifikatzen duena eta onuradunaren zereginaren berezko jarduerari edo ezaugarrii buruzko informazioa ematen duena. Errotulu nagusia bakarria da. / El rótulo general exterior principal, identificativo del establecimiento y en el que se informe sobre la actividad o características intrínsecas al quehacer del beneficiario. El rótulo principal solo es uno.	
<input type="checkbox"/> Toldoen errotulazioa, erakunde onuradunaren jarduerari buruzko informazio esklusiboarekin edo haren informazio espezifikoarekin. Ez du erakundeaz bestelako publizitate-elementurik babestuko. / Rotulación de toldos con información exclusiva sobre la actividad de la entidad beneficiaria o información específica de la misma. No amparará otros elementos publicitarios ajenos a la entidad.	
<input type="checkbox"/> Ibilgailu industrialen errotulazioa, erakunde onuradunaren jarduerari buruzko informazio esklusiboarekin edo haren informazio espezifikoarekin. Ez du entitatearekin zerkusirik ez duen beste publizitate-elementurik babestuko. / Rotulación de vehículos industriales, con información exclusiva sobre la actividad de la entidad beneficiaria o información específica de la misma. No amparará otros elementos publicitarios ajenos a la entidad.	
<input type="checkbox"/> Merkataritza-informazioko plaketako errotuluak, baldin eta atarien edo sarbideen kanpoaldean badaude, bide publikotik ikus daitezkeenak eta eskaintako zerbitzuari buruzko informazioa jasotzen dutenak, ataria, telefonoa edo antzekoak adieraztetik harago. / Rótulos en placas de información comercial, siempre que se encuentren en el exterior de los portales o accesos, visibles desde la vía pública y que recojan información del servicio ofrecido más allá de indicación del portal, teléfono o similares.	

Aurkeztu behar diren agiriak:

- Eskaera orria, eskatzen diren datua beharbezala beteta. Beste diru-laguntza batzuk eskatu diren ala ez adierazten duen agiria, eta halakorik eskatu bada eskaeraren fotokopia egiaztatua. Eskaerak erantzuna jaso badu, ebazpenaren fotokopia egiaztat (emandako edo ukatutako diru-kopurua). Ebazpenaren berri ez bada jaso, hori adierazten duen aitortpena.
- Eskabidea pertsona fisiko batek izapidetzen badu, eskabidea sinatzen duenaren NANaren kopia; pertsona juridikoa izanez gero, IFKren txartelaren kopia, ordezkatzen duen pertsona fisikoaren NANaren kopia eta pertsona fisiko hori pertsona juridikoaren legezko edo baimendutako ordezkaria dela egiaztatzen duen agiria.
- Diseinuaren proba, errotulatu beharreko testua, eta errotulazio-lanaren aurrekontu xehatua. Eginda badago, fakturaren kopia konpultsatua. Ordainagiriarekin batera ordainketaren egiaztagiria aurkeztuko da.
- Eskumena duen administrazioak emandako ziurtagiria, Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena, edo, hala badagokio, eskatzaileak sinatutako baimena, Aiara Udalak, bere ordezkarri gisa, ziurtagiri bat eska diezaion administrazio eskudunari, eskatzaileei dagozkien Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren zergak egunean dituela egiaztatzen duena (2. eranskina).

Documentos que se deben presentar:

- Impreso de solicitud con todos os datos solicitados, incluyendo declaración sobre la existencia o no de otras peticiones de subvención y, en su caso, fotocopia compulsada de la petición. Si la petición ha recibido respuesta, fotocopia compulsada de la resolución (cantidad concedida o denegación); si se está a la espera de resolución, declaración en tal sentido.
- Si la solicitud la tramita una persona física, copia del DNI de la o el firmante de la solicitud; si fuera una persona jurídica, copia de la tarjeta del CIF, copia del DNI de la persona física que lo representa y acreditación de que esa persona física es la representante legal o autorizada de la persona jurídica.
- Prueba del diseño, texto a rotular y presupuesto detallado del trabajo de rotulación. Si se encontrase ya realizada, copia compulsada de la factura. Se acompañará a la factura el justificante del pago de la misma.
- Certificado emitido por la administración competente, acreditativo de estar al corriente de las obligaciones con la Seguridad Social y Hacienda Foral, o en su caso, autorización firmada por solicitante para que en su representación, el Ayuntamiento de Ayala solicite certificado a la administración competente acreditativo de estar al corriente de pago de los impuestos de la Hacienda Foral y con la Seguridad Social relativos a solicitantes (anexo 2).

Data/Fecha: _____

Sinadura Digitala (Klik eranste) / Firma Digital (Clic para adjuntar)

Eskuzko Izenpea / Firma Manual

AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA.

I.F.K. C.I.F. P0101100F ✉ B⁹La Iglesia, 3 - 01476 Respaldiza - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

ERROTULAZIOAN EUSKARA SARTZEAGATIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA
SOLICITUD DE SUBVENCIÓN POR INSERCIÓN DEL EUSKERA EN ROTULACIÓN

3.05

II ERANSKINA / ANEXO II

ESKATZAILEA / SOLICITANTE			
Izena eta abizenak / Nombre y apellidos	NAN / DNI		
<input type="text"/>	<input type="text"/>		
Helbidea / Domicilio	P. K. / C. P.	Herria / Localidad	Probintzia / Provincia
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
E-posta / e-mail	Telefono zk. / N° Teléfono	Sakelakoaren zk. / N° móvil	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	

BAIMENA EMATEN DIOT:

AUTORIZO:

AIARAKO UDALARI, nire izenean, eska dezan administrazio eskudunak emandako agiria, Foru Aldundiaren zergak eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duena.

AL AYUNTAMIENTO DE AYALA a que solicite, en mi nombre, certificado de la Administración competente acreditativo de estar al corriente del pago de los impuestos con la Hacienda Foral y de los pagos con la Tesorería General de la Seguridad Social.

Data / Fecha:

Sinadura Digitala (klik eransteke) / Firma Digital (Clic para adjuntar)

Eskuzko Izenpea / Firma Manual

AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA.